

## DEIALDIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO DOKTORETZA TESIAK EGITEKO LAGUNTZA OSAGARRIETARAKO, 2010. URTEKOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eremuan ikerketa sustatu eta laguntzeko politikaren barruan, Ikerketa Batzordeak beharrezko ikusten du ikertzaileen prestakuntza sustatzea doktoretza tesiak egiteko laguntzen bidez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoretza tesiak egiteko laguntza osagarrietarako deialdia 2010. urteko ekitaldirako, deialdi honetako oinarriek arautuko dute.

### 1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen bidez doktoretza tesia egitea ahalbidetzen edo horretan laguntzen duten jarduerak diruz lagundu nahi dira, adibidez, material suntsigarria erostea, dokumentazioa, bibliografia, landa lanak, bidaiak, etab. Laguntza hauetatik espresuki kanpo gelditzen dira protokolozko ekintzen ordainketak eta irakaskuntzarako edo ikerkuntzarako ekipamenduen erosketak.

### 2.- ESKATZAILEEK BETE BEHARREKOAK

Eskatzaileek ondoko baldintza hauetakoren bat izan beharko dute:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko laguntzaile ez doktorea izatea.
2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoretza aurreko laguntzaren baten onuraduna izatea.
3. Unibertsitateko Irakasleak Prestatzeko edo Ikertzaileak Prestatzeko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren doktoretza aurreko laguntzaren baten edo xedea doktoretza tesia egitea duten beste deialdi parekatu batzuen onuraduna izatea.
4. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko doktoretza aurreko laguntzaren baten edo xedea doktoretza tesia egitea duten beste deialdi parekatu batzuen onuraduna izatea.

Laguntza horien onuradunak erroldatuta egon beharko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko 2010eko Ikerketa Taldeen Katalogoan.

Bete beharrekoak eskabideak aurkezteko epean bete behar dira.

### 3.- BALDINTZAK

3.1.- Doktoregai bakoitzak laguntza bakar bat jaso ahalko du deialdi honetan, eta lau gehienez ere, bat Doktoretza tesia egiten ari den urte bakoitzeko.

3.2.- Ematen den laguntza kopurua eta haien zenbatekoa kontzeptu horretarako dagoen aurrekontuak mugatuko du eta, nolana ere, ematen diren laguntzen zenbatekoak ezin izango du 2010eko ekitaldirako ezarritako gehieneko aurrekontua gainditu, 55.000 euro, alegia. Zenbateko hori 2010eko Gastuen Aurrekontuko *Tesiak egiteko laguntzak* izeneko 31.30.00.482.05 kontusailaren kargura ordaintzeko proposatzen da.

3.3.- Tesiak egiteko laguntza bakoitzerako gehieneko zenbatekoa ez da 850 euro baino

gehiago izango.

3.4.- Laguntza hauek bateraezinak dira antzeko helburua duten bestelako laguntzekin edo dirulaguntzekin. Zehazki, bateraezinak dira ikerketarako bestelako laguntzen laguntza osagarriekin.

3.5.- Oinarri hauetako bigarren atalean adierazitako doktoretza aurreko laguntzak izateko epea urte batetik beherakoa bada, doktoretza tesia egiteko laguntza osagarria murriztu ahalko da, doktoretza aurreko laguntza izan den denboraren proportzioan.

#### 4.- ESKABIDEAK BETETZEA

4.1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako webgunean jarritako inprimakiak bete beharko dituzte eskatzaileek. Eskabideak Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira 2010eko ekainaren 15eko 14:30ak baino lehen.

4.2.- Eskatzaile bakoitzak ondoko agiriak eman beharko ditu behar bezala beteta: Laguntzarako eskaera inprimaki normalizatuan, tesiaren zuzendariak O.E. eta eskatzailea doktoretza tesia egiten ari dela frogatzen duena zuzendariaren sinadurarekin.

1. Eskatzailearen txostena, laguntzaren xedeari buruz.

#### 5.- LAGUNTZAK EMATEA

5.1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Batzordeak egingo du laguntzen esleipen proposamena eta finkatuko du haien banakako zenbatekoa, honako hauek kontuan hartuta:

1. Aurreikusten diren jardueren interes akademikoa eta zientifikoa.

2. Dauden baliabideen optimizazioa.

5.2.- Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, gehienez ere bi hilabeteko epean, Unibertsitateko errektoreak, Ikerketa Batzordeak proposatuta, laguntzak esleitzeko ebazpena emango du. Deialdi honetako laguntzen ebazpena eta esleipena interesdunei eta beren tesi zuzendariari jakinaraziko zaie.

#### 6.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

6.1.- Onuradunak laguntza onartzeak berarekin dakar deialdi honetan ezarritako arauak onartzea, eta baita Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere erabilpenaren jarraipen zientifikorako ezartzen dituenak ere.

6.2.- Deialdiko oinarriak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo haietan iruzur egiten bada, laguntza kendu edo eten ahalko da. Hala gertatzen denean, doakionak hartutako dirua edo hartzeko duena itzuli beharko du.

#### 7. GASTUEN HAUTAGARRITASUNA ETA LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Deialdi honetan gastu hautagarritzat hartuko dira Doktoretza Tesia egitearekin eta defenditzearekin lotutako jardueretatik eratorritakoak, adibidez, honako hauek, besteak beste:

- matrikula gastuak
- IAD eskuratzeko tasen ordainketa

- ikastaroetara, jardunaldietara joatetik edo egonaldiak egitetik eratorritako gastuak (dietak, inskripzioa, bidaia aseguruak)
- artikuluen itzulpena
- koadernaketa eta fotokopien gastuak
- bileretara joateko bidaiak eta dietak
- liburuak

Ez dira gastu hautagarritzat hartuko protokolozko ekintzek eragindako gastuak, ez eta irakaskuntzarako edo ikerkuntzarako ekipamenduen erosketak eragindakoak ere.

Laguntza hauen onuradunek irailaren 30a baino lehen Ikerketa Zerbitzuan aurkeztuko dituzte gastuen ordainagiriak tesiaren zuzendariak ontzat emanda. Ordainagiriak aztertu eta deialdiko oinarriak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Ikerketa Zerbitzuak onuradunei ordaintzeko eskatuko dio Kontabilitate Atalari. Deialdiak dituen ezaugarriak direla-eta, soilik onartuko dira aldeztatik ordaindutako jatorrizko ordainagiriak, laguntzaren onuradunaren izenean daudenak.

Interneten bidez erositako txartelen eta erosketen kasuan, ordainagiria eskatu behar da baita erreserba egiteko unean ere.

Ikastaroetako, biltzarretako edo egonaldietako dietak ordaintzeko, asistentzia edo egonaldia egin izanaren ziurtagiria eskatuko da.

Irailaren 30aren ondoren egiten diren jardueren justifikazioak Ikerketa Zerbitzuan aurkeztuko dira Unibertsitateak aurrekontu ekitaldia ixteko ezartzen dituen epeetan.

## 8.- ARGITARATZEA

Deialdi honetan azaltzen diren oinarriak Unibertsitatearen komunikabide elektronikoen bidez hedatuko dira. Ikerketarako Errektoreordetza arduratuko da zabalkunde handiena emateaz.

## 9.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honen eta deialdi honetako oinarrien aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke errektorearen aurrean hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.